

# THINK TANK

Nafarroa Kultura  
Cultura Navarra

## Think Tank. Hausnarketa-eremua eta pentsamendu-topaketak

### 1. THINK TANK LABORATEGIA: Kulturaren berri zabaltzea praktikotasuna oinarri harturik

Hizlaria: Andrés de la Riva

TELEFONOA 848 427184

TOKIA: Artxibo Nagusia. maiatzaren Bia, z.g. 31001 Iruña

Apirialaren 26a

ORDUTEGIA: 9:00 a 13:00

IKASLE KOP: 30

#### Zer da Think Tank?

CNK pentsamendu-foroa da, Nafarroako kulturari lotutako ideiei buruzkoa. Gizarte zibilaren eta administrazio publikoen partaidetza-plataforma da, zeinean ezagutzak eta ideiak partekatzen baitira gaiaren araberako foroetan parte hartuta.

Idea-laborategia izan daiteke Think Tank-en euskarazko ordaina. Horixe lortu nahi baitu, hots, ideiak landu eta partekatu, aldi berean igortzailea eta hartzailea izan, eta adimen kolektiboak landu Nafarroako kulturari eta gizarteari gaur egun interesatzen zaizkien gaiei buruz.

2018tik aurrera izango dira laborategi horiek erreferentzia Nafarroako kulturaren, Kulturaren Nafarroako Behatokiaren abiaraztearekin lotuko baitira, eta arteak, ekonomia, posizionamendua, berrikuntza, kontzeptuak, garapena, gaurkotetasuna eta etorkizuna, eta antolakuntza jorratuko dituzte ildo nagusi gisa.

#### Helburuak:

- Elkarrizketarako eremuak ezartzea
- Partaidetza espezializatuko foroa eskaintzea
- Eztabaida publikoa sortzea kulturaren eta gizartearen arteko loturari buruz
- Kulturaren sektoreen diziplinarteko inter-formakuntza garatzea
- Kulturaren arloko politika publikoen ezagutza berritzaileari buruz ikertzea
- Arte eta kulturaren ekosistemak elkarrekin harremanetan jartzea, baita beste ingurune batzuekin ere
- Kulturaren eta gizartearen arteko egungo garapen-dinamikak modu kolektiboan berriro pentsatzea beste eremu sozial, zientifiko eta ekonomiko batzuei dagokienez
- Premiak, jarduketako-ildoak eta etorkizuneko estrategiak identifikatzea.

Gai askotarikoak izango dira, hala nola komunikazioa, kultura-bitartekaritza, XXI. mendeko kultura-ekipamenduetarako ikuspegi berriak, euskarazko sormena, kulturaren nazioartekotzea, berdintasuna eta proiektu europarrak

### LABORATEGIA: Kulturaren berri zabaltzea praktikotasuna oinarri harturik

Komunikazioa funtsezko prozesu bihurtu da, gure gizartearen alor guztiak antolatzen baititu gaur egun. Kultura esparrua barne, jakina. Komunikazioaren paradigma, ordea, abiadura bizi-bizian ari da aldatzen. Informazioa kontsumitzeko gure moldean erabakigarriak dira egia-ostea, big data edo datu-trafikoa bezalako kontzeptuak. Baita globalizazioak inposatzen duen berehalakotasuna eta hedabide digitalak, batez ere sare sozialak, erabiltzeko eredu berriak. Horrek guztiak nahasmendu orokorra sortzen digu eta, beraz, beharrezkoa dugu inguruko errealitatea xehe-xehe aztertzea tresna praktiko zenbait erabiliz, ahalbidetuko digutenak begirada kritikoz hausnartzea jasotzen eta igortzen ditugun mezuei buruz